Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala — Boletín Oficial de Gipuzkoa

2023ko maiatzaren 26a, ostirala — 101 — Viernes, a 26 de mayo de 2023

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO ADMINISTRAZIOA — 2 — ADMINISTRACIÓN DEL TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

## GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

### KULTURA, LANKIDETZA, GAZTERIA ETA KIROL DEPARTAMENTUA

*Eszena arteak (antzerkia edota dantza) ekoizten eta zabaltzen diharduten entitateei zuzendutako dirulaguntzen lerroaren berariazko oinarri arautzaileak eta 2023ko deialdia.*

Diputatuen Kontseiluak 2023ko maiatzaren 9an egindako batzarraldian, besteak beste, honako erabaki hau hartu du:

«2021eko apirilaren 13ko Diputatuen Kontseiluko erabakiaren bidez, Liburutegiko eta Kultura Sustapen eta Hedapeneko Zerbitzuak kudeatzen dituen programen kontura ematen diren dirulaguntzen oinarri orokorrak eta berariazkoak onetsi ziren eta 2021eko apirilaren 29ko 78 zb. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren.

Eszena arteak (antzerkia edota dantza) ekoizten eta zabaltzen diharduten entitateei zuzendutako dirulaguntzen berariazko oinarriak Diputatuen Kontseiluak 2022ko martxoaren 29an onetsitakoak dira, eta 2022ko apirilaren 12ko 70 zkiko. Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu ziren.

Kulturako Zuzendaritza Nagusiak, Gipuzkoako Lurralde Historikoan arteen eta kulturaren eremuan kultura eragile publiko eta pribatuekin jarduerak egiten dituzten entzute aktiboko eta lankidetzako kanalak indartze aldera 2022ko ekitaldiko laguntzen deialdian lortutako esperientziaren ondorioz, oinarri espezifikoetan egokitzapen bat egitea proposatu du, bideratutako funtsen aplikazio hobea lortu ahal izateko.

Erabaki honen bidez, aldatzen den dirulaguntza lerroaren berariazko oinarriak aldatzen dira:

— Eszena arteak (antzerkia edota dantza) ekoizten eta zabaltzen diharduten entitateei zuzendutako dirulaguntzak.

Dirulaguntza horiek 2020-2023 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren barruan daude (DPE).

Aldi berean, lerro honen deialdia onartzen da.

Horiek horrela, Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuko foru diputatuak proposatuta eta eztabaidatu ondoren, Diputatuen Kontseiluak

ERABAKITZEN DU

*Lehenengo.* Onestea honako dirulaguntza lerroaren berariazko oinarri arautzaileak:

— Eszena arteak (antzerkia edota dantza) ekoizten eta zabaltzen dituzten entitateei zuzendutako dirulaguntzak.

Oinarri arautzaile horiek I. eranskin gisa erantsi zaizkio erabaki honi.

*Bigarren.* Onestea, eszena arteak (antzerkia edota dantza) ekoizten eta zabaltzen diharduten entitateei zuzendutako dirulaguntzen lerroaren 2023ko deialdia. II. eranskin gisa erantsi zaio erabaki honi.

## DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

### DEPARTAMENTO DE CULTURA, COOPERACIÓN, JUVENTUD Y DEPORTES

*Bases específicas de la línea de subvenciones dirigidas a las entidades dedicadas a la producción y difusión de las artes escénicas (teatro y/o danza) y convocatoria 2023.*

El Consejo de Gobierno Foral, en sesión celebrada el 9 de mayo de 2023, ha adoptado entre otros el siguiente acuerdo:

«El Consejo de Gobierno Foral, en sesión de 13 de abril de 2021, aprobó las bases reguladoras generales de las líneas de subvenciones gestionadas por el Servicio de Biblioteca, Promoción y Difusión Cultural, así como las específicas correspondientes a cada una que fueron publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 78, de 29 de abril de 2021.

Las bases reguladoras específicas de las subvenciones dirigidas a las entidades dedicadas a la producción y difusión de las artes escénicas (teatro y/o danza) fueron aprobadas por el Consejo de Gobierno Foral, en sesión de 29 de marzo de 2022 y fueron publicadas en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 70, de 12 de abril de 2022.

La Dirección General de Cultura, buscando reforzar los canales de escucha activa y cooperación con los agentes culturales públicos y privados que llevan a cabo actividades en el ámbito de las artes y de la cultura en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, y, como consecuencia de la experiencia adquirida, mediante la aplicación práctica, en la convocatoria de ayudas del ejercicio de 2022, propone realizar una adaptación en esta base específica, para obtener una mejor aplicación de los fondos destinados.

Por el presente acuerdo se aprueban las bases específicas de la línea que se modifica:

— Subvenciones dirigidas a las entidades dedicadas a la producción y difusión de las artes escénicas (teatro y/o danza).

Dichas subvenciones se encuentran incluidas en el Plan Estratégico de Subvenciones 2020-2023 (PES).

Asimismo, se aprueba la convocatoria de dicha línea.

En su virtud, a propuesta de la diputada foral del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes, previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral

ACUERDA

*Primero.* Aprobar las bases reguladoras específicas de la siguiente línea de subvenciones:

— Subvenciones dirigidas a las entidades dedicadas a la producción y difusión de las artes escénicas (teatro y/o danza).

Dichas bases reguladoras específicas se adjuntan como anexo I al presente acuerdo.

*Segundo.* Aprobar la convocatoria, correspondiente al ejercicio 2023, de la línea de subvenciones dirigidas a las entidades dedicadas a la producción y difusión de las artes escénicas (teatro y/o danza), que se adjunta como anexo II del presente acuerdo.

EK\CV GAO-I-2023-03672

*Hirugarren.* Baimentzea deialdia finantzatzeko hirurehun eta hogeita hamar mila (330.000) euroko gastua aurrekontu xedapen honekin:

| *Aurrekontu saila* | *Zenbatekoak (€)* |
|---|---|
| 1.0910.120.470.00.02.2023 | 180.000,00 |
| 1.0910.120.481.00.30.2023 | 18.000,00 |
| 5.0910.120.470.00.02.2024 | 120.000,00 |
| 5.0910.120.481.00.30.2024 | 12.000,00 |

Baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

*Laugarren.* Erabaki honek onartzen dituen oinarri arautzaileek ondorioak izango dituzte Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratzen diren egun beretik aurrera.

Erabaki hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek erabaki honen aurka zuzenean administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkez dezakete Administrazioarekiko Auzietako Donostiako Epaitegietan, argitaratu eta biharamunetik hasita Bi Hilabeteko epean.

Hala ere, partikularrek aukera dute horren aurretik berraztertzeko hautazko errekurtsoa aurkezteko Diputatuen Kontseiluari, argitaratu eta biharamunetik hasita hilabeteko epean. Hori eginez gero, ezingo da administrazioarekiko auzi errekurtsorik aurkeztu harik eta berraztertzekoaren berariazko ebazpena eman edo ustezko ezespena gertatu arte. Dena dela, egoki iritzitako beste edozein errekurtso aurkez daiteke.»

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da hori.

Donostia, 2023ko maiatzaren 16a.—Iñaki Sainz Paredes, idazkari teknikoa. (3672)

I. ERANSKINA

*Eszena arteak (antzerkia edota dantza) ekoizten eta zabaltzen diharduten entitateei zuzendutako dirulaguntzen ematea arautzen duten berariazko oinarriak.*

*1. Xedea.*

Oinarri hauen xedea da arte eszenikoak ekoizten eta zabaltzen dituzten erakundeei dirulaguntzak ematea arautzea, beren ikuskizunak sustatzeko eta saltzeko programek eragindako gastu ekonomikoak arintzeko.

Dirulaguntza honen xederako, arte eszenikotzat jotzen dira antzerki eta dantza jarduerak bakarrik.

*2. Eskatzaileak, diruz lagunduko diren jarduerak eta baldintzak.*

Baldintza hauek betetzen dituztenek eska ditzakete laguntza hauek:

— Egoitza soziala eta fiskala Gipuzkoan duten pertsona fisiko edo juridiko-pribatuak izatea.

— Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren antzerki jardueren epigrafean alta emanda egotea, eta, pertsona juridikoen kasuan, antzerki eta/edo dantza jarduerak egitearekin bat datorren xede soziala izatea.

— Azken bost urteetan, gutxienez izaera profesionaleko 3 antzerki eta/edo dantza ikuskizun eszeniko egin eta antzeztu izana, eta deialdiaren urtean jardunean izatea, aurreko urtean edo deialdiaren urtean ekoitzitako obra batekin gutxienez.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak honako arlo hauetan bilduko dira:

*Tercero.* Autorizar un gasto de trescientos treinta mil (330.000) euros con la imputación presupuestaria que se indica para financiar dicha convocatoria:

| *Partida presupuestaria* | *Importes (€)* |
|---|---|
| 1.0910.120.470.00.02.2023 | 180.000,00 |
| 1.0910.120.481.00.30.2023 | 18.000,00 |
| 5.0910.120.470.00.02.2024 | 120.000,00 |
| 5.0910.120.481.00.30.2024 | 12.000,00 |

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

*Cuarto.* Las bases reguladoras que se aprueban en virtud del presente acuerdo surtirán efectos desde el mismo día de su publicación en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

Este acuerdo es definitivo y pone fin a la vía administrativa. Las personas interesadas podrán interponer directamente contra él recurso contencioso-administrativo ante los Juzgados de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián, en el plazo de dos meses a partir del día siguiente al de su publicación.

No obstante, las personas particulares, con carácter previo, podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el Consejo de Gobierno Foral, en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación. En este caso, no se podrá interponer recurso contencioso-administrativo hasta que sea resuelto expresamente el de reposición o se haya producido su desestimación presunta. Todo ello sin perjuicio de la interposición de cualquier otro recurso que se estime pertinente.»

Lo que se comunica para general conocimiento.

San Sebastián, a 16 de mayo de 2023.—El secretario técnico, Iñaki Sainz Paredes. (3672)

ANEXO I

*Bases específicas por las que se regula la concesión de subvenciones dirigidas a las entidades dedicadas a la producción y difusión de las artes escénicas (teatro y/o danza).*

*1. Objeto.*

El objeto de las presentes bases es regular la concesión de subvenciones dirigidas a las entidades dedicadas a la producción y difusión de las artes escénicas, con el fin de paliar los gastos económicos producidos por los programas de promoción y venta de sus espectáculos.

Para el objeto de esta subvención se consideran como artes escénicas exclusivamente las actividades de teatro y danza.

*2. Solicitantes, actividades subvencionables y requisitos.*

Podrán solicitar estas ayudas quienes cumplan los siguientes requisitos:

— Ser personas físicas o jurídico-privadas con domicilio social y fiscal en Gipuzkoa.

— Estar dadas de alta en el correspondiente epígrafe de las actividades teatrales y/o de danza del Impuesto de Actividades Económicas, y además, en el caso de las personas jurídicas, tener un objeto o fin social acorde con el desarrollo de actividades teatrales y/o de danza.

— Haber producido y exhibido un mínimo de 3 espectáculos escénicos de teatro y/o danza de carácter profesional en los últimos cinco años y estar en activo en el año de la convocatoria con un mínimo de una obra producida en el año anterior o en el de la convocatoria.

Las actividades subvencionables se enmarcarán en las siguientes áreas:

EK\CV GAO-I-2023-03672

2.1. Haiek ekoitzitako ikuskizun eszenikoak sustatzeko eta saltzeko kontratatutako langileen gastuak.

2.2. Komunikazio gastuak: telefonoa, internet, propaganda materiala, publizitatea, sustapen bideoak eta antzekoak.

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak deialdiak ezartzen duen urte naturalaren barruan gauzatu behar dira, hau da, urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean.

*3. Baztertzekoak.*

Dirulaguntza hauetatik kanpo geratzen dira, espresuki, programa edo jarduera hauek:

a) Dirulaguntza izenduna dutenak.

b) Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Lankidetza, Gazteria eta Kirol Departamentuaren beste laguntza deialdietan egokiago edo berariazkoago sartzen direnak.

c) Ekoizpen eszenikoak modu ez profesionalean egiten dituzten pertsonak eta erakundeak. Horri dagokionez, ez-profesionaltzat hartuko dira obra eszenikoen jarduleekin (aktoreak, dantzariak) kontratu harremanik ezartzen ez duten erakundeak.

*4. Eskaerak balioztatzea eta dirulaguntzak ematea.*

Baldintzak betetzen dituzten eta 2. oinarrian aipatzen diren diruz laguntzeko moduko jardueretako bat egiten duten pertsonek eta erakundeek dirulaguntza eskuratu ahal izango dute.

Dirulaguntza honako irizpide hauek aplikatuz kalkulatuko da:

a) Onuraduna sozietate mugatu edo anonimo motako enpresa edo kooperatiba egitura bat bada, a.1 eta a.2 ataletan jasotako kontzeptuen baturaren emaitza izango da dirulaguntza:

a.1. Ikuskizunak, osorik edo zati batean, sustatzen eta saltzen aritzen diren langileak kontratatzeko kostuaren % 50, gehienez 15.000 euroko dirulaguntzarekin. Atal honetan sartu ahal izango dira kontratatutako langileen nominak (Gizarte Segurantzari dagozkion gastuak barne) eta hirugarrenei egindako ordainketak.

a.2. Komunikazio gastuen eta sustapenera bideratutako materialak egiteko kostuaren % 50; gehienez ere 6.000 euroko dirulaguntza. Atal honetan honako gastu hauek sar daitezke: telefonia, Internet, kartelak, liburuxkak, bideoak, web orriak (mantentze lanak eta diseinua) eta antzekoak.

b) Onuraduna beste erakunde juridiko bat (irabazi asmorik gabeko erakundea) edo pertsona fisikoa bada, dirulaguntza honako atal hauetan (b.1 eta b.2) bildutako kontzeptuen baturaren emaitza izango da:

b.1. Ikuskizunak, osorik edo zati batean, sustatzen eta saltzen aritzen diren langileak kontratatzeko kostuaren % 50, gehienez 7.500 euroko dirulaguntzarekin. Atal honetan sartu ahal izango dira kontratatutako langileen nominak (Gizarte Segurantzari dagozkion gastuak barne) eta hirugarrenei egindako ordainketak. Onuraduna autonomoen araubideko pertsona fisikoa bada, autonomo kuotak sartu ahal izango ditu gastutzat, baina ez haren soldata.

b.2. Komunikazio gastuen eta sustapenera bideratutako materialak egiteko kostuaren % 50; gehienez ere 3.000 euroko dirulaguntza. Atal honetan honako gastu hauek sar daitezke: telefonia, Internet, kartelak, liburuxkak, bideoak, web orriak (mantentze lanak eta diseinua) eta antzekoak.

c) Onuraduna, bere figura juridikoa edozein dela ere, konpainia berri edo sortu berri bat denean (deialdiaren aurreko lau urteetan erregistratua), b puntuan deskribatutako irizpidea aplikatuko da.

2.1. Gastos de personal contratado para labores de promoción y venta de los espectáculos escénicos producidos por ellas mismas.

2.2. Gastos de comunicación: teléfono, Internet, material de propaganda, publicidad, realización de videos promocionales y similares.

Las actividades objeto de la subvención deberán realizarse dentro del año natural que establece la convocatoria, entre el 1 de enero y el 31 de diciembre.

*3. Exclusiones.*

Quedan excluidos expresamente de estas ayudas los siguientes programas o actividades:

a) Los que sean objeto de subvención nominativa.

b) Los que tengan inclusión más adecuada o expresa en otras convocatorias de ayudas del Departamento de Cultura, Cooperación, Juventud y Deportes de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

c) Las personas y entidades que realicen producciones escénicas de modo no profesional. A este respecto se considerarán no profesionales a las entidades que no establezcan relación contractual con los ejecutantes (actores, bailarines) de las obras escénicas.

*4. Valoración de las solicitudes y concesión de la subvención.*

Las personas y entidades que cumplan los requisitos y realicen alguna de las actividades subvencionables mencionadas en la base 2, podrán optar a una subvención.

La subvención se calculará aplicando los siguientes criterios:

a) En el caso de que la beneficiaria sea una estructura empresarial de tipo Sociedad Limitada o Anónima o cooperativa la subvención será el resultado de la suma de los conceptos recogidos en los apartados siguientes, a.1 y a.2:

a.1. El 50 % del coste de contratación del personal dedicado en total o en parte a la promoción y venta de los espectáculos, hasta un máximo de 15.000 euros de subvención. En este apartado se podrán incluir tanto las nóminas del personal contratado (incluyendo los gastos correspondientes a la Seguridad Social) como los pagos a terceros.

a.2. El 50 % de los gastos de comunicación y del coste de realización de materiales destinados a la promoción, hasta un máximo de 6.000 euros de subvención. En este apartado pueden incluirse gastos correspondientes a: telefonía, internet, carteles, folletos, videos, páginas web (tanto mantenimiento como diseño) y similares.

b) En el caso de que la beneficiaria sea otro tipo de entidad jurídica (entidad sin ánimo de lucro) o persona física, la subvención será el resultado de la suma de los conceptos recogidos en los apartados siguientes, b.1 y b.2:

b.1. El 50 % del coste de contratación del personal dedicado en total o en parte a la promoción y venta de los espectáculos, hasta un máximo de 7.500 euros de subvención. En este apartado se podrán incluir tanto las nóminas del personal contratado (incluyendo los gastos correspondientes a la Seguridad Social) como los pagos a terceros. En el caso de que la beneficiaria sea una persona física en régimen de autónomos, podrá incluir como gasto las cuotas de autónomo, no así su salario.

b.2. El 50 % de los gastos de comunicación y del coste de realización de materiales destinados a la promoción, hasta un máximo de 3.000 euros de subvención. En este apartado pueden incluirse gastos correspondientes a: telefonía, internet, carteles, folletos, videos, páginas web (mantenimiento y diseño) y similares.

c) Cuando la beneficiaria, sea cual sea su figura jurídica, sea una compañía emergente o de reciente creación (registrada en los últimos cuatro años anteriores a la convocatoria) se aplicará el criterio descrito en el punto b.

EK\CV GAO-I-2023-03672

d) Onuraduna arte eszenikoetan (antzerkia eta/edo dantza) partzialki aritzen den pertsona edo erakunde bat bada eta ez bada bere jarduera osoaren % 50era iristen, b) puntuan deskribatutako irizpidea aplikatuko da.

Aurrekontua egitean, arte eszenikoez gain (antzerkia eta dantza) beste jarduera mota bat garatzen duten erakundeen kasuan (musika, ikus-entzunezkoak edo beste batzuk), kontuan hartuko da arte eszenikoei dagokien zatia bakarrik kalkulatu eta kontsignatuko dutela. Era berean, kontratatutako pertsonek diruz lagundu daitezkeen funtzioez gain beste batzuk ere egiten badituzte, diruz lagundu daitezkeen programetara bideratutako lanaren ehunekoa soilik adierazi beharko da.

*5. Dirulaguntzaren zenbatekoa.*

Dirulaguntzaren zenbatekoa 4. puntuko irizpideak aplikatzearen emaitza izango da.

Laguntza horietara bideratutako aurrekontu zuzkidurak ez badie hautatutako eskaerei aipatutako mugara iristeko aukerarik ematen, dirulaguntzaren kopurua proportzionalki murriztuko da.

Nolanahi ere, dirulaguntzak ez du gaindituko Gipuzkoako Foru Aldundiari eskatutako zenbatekoa.

*6. Dirulaguntzak ordaintzea.*

Oinarri orokorren 10. xedapenak aurreikusi bezala, oro har, diruz lagundutako jarduerak amaitzean ordainduko dira dirulaguntzak, 12. oinarri orokorrean aurreikusitako baldintzetan zuritu ondoren.

Dirulaguntzen zuriketa eta dagokion ekitaldiko deialdian azken ordainketa egiteko gehieneko epea hurrengo ekitaldiko martxoaren 1a izango da.

II. ERANSKINA

*Eszena arteak (antzerkia edota dantza) ekoizten eta zabaltzen diharduten entitateei zuzendutako dirulaguntzen 2023ko ekitaldiko deialdia.*

*Lehena. Oinarri arautzaileak.*

1. 2021eko apirilaren 13ko Diputatuen Kontseiluko erabakiaren bidez, Liburutegiko eta Hedapeneko Kultura Sustapen Zerbitzuak kudeatzen dituen programen kontura ematen diren dirulaguntzen oinarri arautzaileak onartu ziren eta 2021eko apirilaren 29ko 78 zkiko. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren.

2. Arte eszenikoen ekoizpenean eta zabalkundean diharduten erakundeei dirulaguntzak emateko berariazko oinarri arautzaileak, ikuskizunak sustatzeko eta saltzeko programek eragindako gastu ekonomikoak arintzeko, Diputatuen Kontseiluak 2023ko maiatzaren 9an onetsitakoak dira, eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuak deialdi honekin batera.

3. Laguntza hauek eskatu ahal izango dituzte Gipuzkoan egoitza soziala eta fiskala duten arte eszenikoen eremuko pertsona fisiko edo juridikoek, baldin eta arte eszenikoen ikuskizunak (antzerkia eta/edo dantza) ekoizteko eta saltzeko programak eta jarduerak zuzenean garatzen badituzte eta 2. oinarri berezian ezarritako baldintzak betetzen badituzte.

*Bigarrena. Laguntzen finantzazioa eta aurrekontua.*

Baimendutako gastua hirurehun eta eta hogeita hamar mila (330.000) euro da, aurrekontu xedapen honekin.

| *Aurrekontu partida* | *Zenbatekoak (€)* |
|---|---|
| 1.0910.120.470.00.02.2023 | 180.000,00 |
| 1.0910.120.481.00.30.2023 | 18.000,00 |
| 5.0910.120.470.00.02.2024 | 120.000,00 |
| 5.0910.120.481.00.30.2024 | 12.000,00 |

d) Cuando la beneficiaria, sea una personas o entidad cuya dedicación a las artes escénicas (teatro y/o danza) sea parcial y no alcance el 50 % de su actividad total, se aplicará el criterio descrito en el punto b).

Al confeccionar el presupuesto, deberá tenerse en cuenta que las entidades que además de las artes escénicas (teatro y danza) desarrollen otro tipo de actividad como la música, los audiovisuales u otras, calcularán y consignarán únicamente la parte que corresponde a las artes escénicas. Así mismo, en caso de que las personas contratadas realicen otras funciones además de las que son objeto de subvención, se deberá indicar únicamente la parte porcentual de su trabajo destinada a los programas subvencionables.

*5. Importe de la subvención.*

El importe de la subvención será el resultante de aplicar los criterios del punto 4.

En el caso de que la consignación presupuestaria destinada a estas ayudas no permita, para el conjunto de las solicitudes seleccionadas, llegar a dichos límites, la cuantía de la subvención se reducirá proporcionalmente.

En todo caso la subvención no superará el importe solicitado a la Diputación Foral de Gipuzkoa.

*6. Abono de las subvenciones.*

De conformidad con lo establecido en la cláusula décima de las bases reguladoras, con carácter general, las subvenciones se abonarán a la finalización de la actividad subvencionada, tras su justificación en los términos previstos en la base general 12.ª

El plazo máximo para presentar la justificación de las subvenciones y realizar la solicitud de abono final en la convocatoria del ejercicio correspondiente, será como máximo el 1 de marzo del ejercicio siguiente.

ANEXO II

*Convocatoria del ejercicio 2023 de subvenciones dirigidas a las entidades dedicadas a la producción y difusión de las artes escénicas (teatro y/o danza).*

*Primera. Bases reguladoras.*

1. Las bases reguladoras generales de las líneas de subvenciones gestionadas por el Servicio de Biblioteca, Promoción y Difusión Cultural, fueron aprobadas por el Consejo de Gobierno Foral, en sesión de 13 de abril de 2021 y fueron publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa n.º 78, de 29 de abril de 2021.

2. Las bases reguladoras específicas de las subvenciones cuyo objeto es la concesión de subvenciones dirigidas a las entidades dedicadas a la producción y difusión de las artes escénicas, con el fin de paliar los gastos económicos producidos por los programas de promoción y venta de sus espectáculos, son las aprobadas por el Consejo de Gobierno Foral, en sesión de 9 de mayo de 2023 y y publicadas en el Boletín Oficial de Gipuzkoa junto a la presente convocatoria.

3. Podrán solicitar estas ayudas las personas físicas o jurídicas del ámbito de las artes escénicas con domicilio social y fiscal en Gipuzkoa que desarrollen directamente programas y actividades de producción y venta de espectáculos de artes escénicas (teatro y/o danza), que cumplan las condiciones establecidas en la base específica n.º 2.

*Segunda. Financiación y presupuesto de las ayudas.*

El gasto autorizado es de trescientos treinta mil (330.000) euros, con la siguiente imputación presupuestaria.

| *Partida presupuestaria* | *Importes (€)* |
|---|---|
| 1.0910.120.470.00.02.2023 | 180.000,00 |
| 1.0910.120.481.00.30.2023 | 18.000,00 |
| 5.0910.120.470.00.02.2024 | 120.000,00 |
| 5.0910.120.481.00.30.2024 | 12.000,00 |

EK\CV GAO-I-2023-03672

Baimendutako gastua handitu ahal izango du aldaketaren zenbatekoaren arabera eskumena esleituta duen organoak, dirulaguntza ematea ebatzi baino lehen. Dena den, horrek ez du beste deialdi bat egitea ekarriko.

*Hirugarrena. Dirulaguntzak eskatzeko baldintzak.*

1. Dirulaguntza hauen onuraduna izan daiteke dirulaguntza ematea oinarritzen duen jarduera egin behar duen pertsona fisiko edo juridikoa edo hura ematea legitimatzen duen egoeran dagoena eta, gainera, dirulaguntza lerro bakoitzerako dagokion eranskinean ezarritako berariazko baldintzak betetzen dituena.

2. Ezingo dira oinarri hauetan araututako dirulaguntzen onuradun izan martxoaren 27ko 3/2007 Foru Arauak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, 12. artikuluan aurreikusten duen egoeraren batean dauden pertsona edo erakundeak, ez eta martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretua, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eta emakumeen aurkako indarkeria matxistarik gabe bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen ezartzen duen sexu diskriminazioa egiteagatik desgaikuntza edo lege debeku kasuren batean daudenak ere.

3. Pertsona eta erakunde eskatzaileek justifikatu ahal izango dute onuradun izateko debekurik ez dutela, lekukotza judizialaren edo egiaztagiriaren bidez, kasuaren arabera; eta agiri horiek eman ezin direnean, administrazio publiko edo notariotza baten aurrean emandako erantzukizunpeko adierazpen baten bidez ordezkatu ahal izango dira.

4. Pertsona eta erakunde eskatzaileek egunean izan beharko dituzte zerga betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Dirulaguntzak kudeatzen dituen organoak egingo du egiaztapena, eta, horretarako, aipatutako datuak zuzenean bilduko ditu haiek ematen dituzten erakundeetatik. Hori ezinezkoa bada edo pertsona edo erakunde eskatzaileak horren aurka egiten badu, berak aurkeztu beharko ditu dagozkion ziurtagiriak.

*Laugarrena. Denbora eremua.*

Diruz lagundu daitezkeen jarduerak deialdiak ezartzen duen urte naturalaren barruan gauzatu behar dira, hau da, 2023ko urtarrilaren 1etik 2023ko abenduaren 31ra bitartean.

*Bosgarrena. Eskaerak aurkezteko epea eta tokia.*

1. Laguntza hauen eskabideak aurkezteko epea deialdi hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean hasiko da, eta 2023ko ekainaren 30n amaituko da.

2. Eskaerak, ezarritako dokumentazioarekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiko egoitza elektronikoaren bidez aurkeztuko dira (https://egoitza.gipuzkoa.eus), dirulaguntzen atarian sartu eta horretarako bertan eskuragarri jarri den berariazko inprimakia erabiliz; inprimakian espresuki jasotzen dira aurkeztu beharreko agiriak eta informazioak.

3. Halaber, prozedura honetako jakinarazpen eta izapide guztiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza elektronikoaren bidez egingo dira (https://egoitza.gipuzkoa.eus), dirulaguntzen atarian sartuta. Erakunde eskatzaileek baliozkotuko dituzte dirulaguntzen organo kudeatzaileak laguntza eskaeran harremanetarako identifikatutako pertsonaren helbide elektronikora emailez bidalitako komunikazio guztiak.

*Seigarrena. Eskabidearekin batera aurkeztu beharreko agiriak eta informazioa.*

1. Eskaeraren formularioarekin batera, pertsona edo entitate eskatzaileek honako dokumentu hauek aurkeztu behar dituzte:

a) Dirulaguntza eskatzen den proiektuaren, programaren edo jardueraren gaineko azalpen txostena.

El importe del gasto autorizado podrá ser incrementado, con carácter previo a la resolución de las solicitudes presentadas, por el órgano que tenga atribuida la competencia por razón de la cuantía de la modificación, sin que ello dé lugar a una nueva convocatoria.

*Tercera. Requisitos para solicitar las subvenciones.*

1. Tendrá la consideración de beneficiaria de estas subvenciones la persona física o jurídica que haya de realizar la actividad que fundamenta su otorgamiento o que se encuentre en la situación que legitima su concesión y que, además, reúna los requisitos específicos establecidos para cada línea de subvención en su respectivo anexo.

2. No podrán obtener la condición de beneficiarias de las subvenciones reguladas en estas bases las personas y entidades en quienes concurra alguna de las circunstancias previstas en el artículo 12 de la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa, ni quienes se hallen incursas en prohibición legal o inhabilitación por discriminación por razón de sexo de conformidad con lo dispuesto en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.

3. La justificación por parte de las personas y entidades solicitantes de no estar incursas en las prohibiciones para obtener la condición de beneficiaria podrá realizarse mediante testimonio judicial o certificación acreditativa, según los casos, y cuando dichos documentos no puedan ser expedidos, podrán ser sustituidos por una declaración responsable otorgada ante una administración pública o notaría.

4. Las personas y entidades solicitantes deberán estar al corriente de sus obligaciones tributarias y de la Seguridad Social. La comprobación la realizará el órgano gestor de las subvenciones, a tal fin, recabará los referidos datos directamente de los organismos emisores de los mismos. Si ello no fuera posible o la persona o entidad solicitante se opusiera a ello, deberá presentar ella misma los certificados correspondientes.

*Cuarta. Ámbito temporal.*

Las actividades objeto de la subvención, deberán realizarse dentro del año natural que establece la convocatoria, entre el 1 de enero del 2023 y el 31 de diciembre del 2023.

*Quinta. Plazo y lugar de presentación de solicitudes.*

1. El plazo de presentación de solicitudes de estas ayudas empezará a contar desde el día siguiente al de la publicación de esta convocatoria en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y finalizará el 30 de junio de 2023.

2. Las solicitudes, junto con el resto de documentación que deba acompañarlas, se presentarán, a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), accediendo al portal de subvenciones y utilizando el formulario específico disponible a estos efectos, en el cual se indican expresamente los documentos e informaciones que deben acompañarlo.

3. Así mismo, todos las comunicaciones y trámites del presente procedimiento se realizarán a través de la sede electrónica de la Diputación Foral de Gipuzkoa (https://egoitza.gipuzkoa.eus), accediendo al portal de subvenciones. Las entidades solicitantes darán validez a todas las comunicaciones emitidas por el órgano gestor de las subvenciones vía e-mail a la cuenta de correo electrónico de la persona de contacto identificada en la solicitud de ayuda.

*Sexta. Documentos e información que deben acompañar a la solicitud.*

1. Junto con el formulario de solicitud, las personas o entidades solicitantes deberán aportar los siguientes documentos:

a) Informe explicativo del proyecto, programa o actividad para el que se solicita la ayuda.

EK\CV GAO-I-2023-03672

b) Proiektu, programa edo jardueraren diru sarrera eta gastuen aurrekontu xehatua. Aurrekontua orekatua izango da, hau da, diru sarreren eta gastuen kopuruak baliokideak izango dira, eta eskatzen den dirulaguntzaren kopurua zehaztu beharko da diru sarreren atalean.

c) Erakunde eskatzailearen identifikazio fiskaleko kodea edo zenbakia (IFK, IFZ).

d) Enpresen kasuan, Merkataritza Erregistroko inskripzioa.

*Zazpigarrena. Dokumentazio elkarreragingarria eta egiaztagarria.*

1. 39/2015 Legeak, urriaren 1ekoak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela administrazio jardulearen esku dauden dokumentuak edo beste edozein administraziok egindakoak ez aurkezteko; beraz, administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango ditu, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki jaso behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datu bitartekaritzarako plataformei edo horretarako prestatutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

2. Gipuzkoako Foru Aldundia Euskadiko administrazioen elkarreragingarritasun eta segurtasun nodoaren (Nisae) parte da. Plataforma hori euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat da, haien artean eta gainerako administrazioekin datu elektronikoak trukatzeko nodo autonomiko gisa. Horrez gain, Foru Administrazioak foru sare korporatiboko aplikazioak edo dokumentuak egiaztatzea eta lortzea ahalbidetzen duten beste sistema batzuk erabiliko ditu.

3. Deialdi honetan honako betekizun hauek egiaztatuko dira plataforma korporatiboen, bitartekaritza-plataformen (Nisae) edo sarbide publikoko plataformen bidez:

a) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean izatea.

b) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta emanda egotea.

c) Zerga betebeharrak egunean izatea; Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun Departamentuarekin egiaztatuko da hori.

d) Euskal Administrazioaren Ordainketa Pasabidearen bidez egiaztatuko den banku kontuaren titulartasuna, betiere dagokion banku erakundea bertan sartu bada.

e) Irabazi asmorik gabeko erakundeen kasuan, elkartearen inskripzioa eta estatutuak Eusko Jaurlaritzako Elkarteen Erregistroan datuak kontsultatuz egiaztatuko dira.

4. Pertsona edo entitate eskatzaileak egiaztapen horren aurka egiten badu, berak aurkeztu beharko du dokumentazioa.

*Zortzigarrena. Zuzenketa eta dokumentazio osagarria.*

1. Agiri horiek eskuratzeko modurik izango ez balitz, organo eskumendunak eska diezaioke eskatzaileari aurkez ditzala agiri horiek edo, bestela, beste bide batez egiazta ditzala agiriak jasotzen dituen betekizunak.

2. Eskaera orriak, edo harekin batera aurkeztutako agiriek identifikazio daturik jasoko ez balute, akatsen bat izango balute edo daturen bat faltako balute, 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legeak 68.1 artikuluan xedatutakoaren arabera, hamar eguneko epea emango litzaioke erakunde eskatzaileari huts egite horiek konpontzeko edo beharrezkoak diren agiriak aurkezteko, eta ohartaraziko litzaioke, horrela egin ezean ulertuko dela eskaera bertan behera utzi duela, aipatutako legeak 21.1 artikuluan aurreikusitako eran ebazpena eman ondoren.

b) Presupuesto detallado de los ingresos y gastos del proyecto, programa o actividad. Deberá ser un presupuesto equilibrado en el que la suma total de ingresos y la de gastos sean equivalentes, precisando en el apartado de ingresos el importe de subvención que se solicita.

c) Número o Código de identificación Fiscal de la entidad solicitante (CIF, NIF).

d) En el caso de empresas, inscripción en el Registro Mercantil.

*Séptima. Documentación interoperable y verificable.*

1. La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones, en el artículo 28 reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración, de tal forma que la administración actuante podrá consultar o recabar dichos documentos, salvo que la persona interesada se opusiera a ello. Las Administraciones Públicas deben recabar los documentos electrónicamente a través de sus redes corporativas o mediante consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas habilitados para ello.

2. La Diputación Foral de Gipuzkoa forma parte del nudo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi Nisae, plataforma común para todas las administraciones y entidades del sector público vasco como nodo autonómico para implementar el intercambio de datos electrónicos entre ellas y con el resto de las administraciones. Además de ello, la Administración Foral hará uso de aplicaciones de la red corporativa foral u otros sistemas que permitan la verificación y obtención de documentos.

3. Los requisitos que se verificarán en esta convocatoria a través de plataformas corporativas, de intermediación (Nisae) o de acceso público serán los siguientes:

a) Estar al corriente de sus obligaciones frente a la Seguridad Social.

b) Estar dada de alta en el Impuesto de Actividades Económicas (IAE).

c) Estar al corriente del cumplimiento de obligaciones tributarias que se verificará con el departamento de Hacienda de la Diputación Foral de Gipuzkoa.

d) La titularidad de la cuenta bancaria que se verificará a través de la Pasarela de Pagos de la Administración Vasca, siempre que la entidad bancaria correspondiente se haya integrado en la misma.

e) En el caso de entidades sin fines de lucro la inscripción de la asociación y sus estatutos se comprobarán consultando los datos en el Registro de Asociaciones del Gobierno Vasco.

4. En el caso de que la persona o entidad solicitante se oponga a esta verificación, será ella misma quién deba presentar la documentación.

*Octava. Subsanación y documentación complementaria.*

1. En los supuestos de imposibilidad material de obtener la documentación, el órgano competente podrá requerir a la persona solicitante su presentación o, en su defecto, la acreditación por otros medios de los requisitos a que se refiere el documento.

2. Si la solicitud o la documentación que debe acompañarla no reunieran los datos de identificación, adolecieran de algún error o fueran incompletas, se requerirá a la entidad solicitante, de acuerdo con lo establecido en el artículo 68.1 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, para que, en un plazo de diez días, subsane la falta o acompañe los documentos preceptivos, con indicación de que, si así no lo hiciera, se le tendrá por desistido de su petición, previa resolución dictada en los términos previstos en el artículo 21.1 de la citada ley.

EK\CV GAO-I-2023-03672

3. Proiektuaren memoria ezin da zuzendu.

4. Nolanahi ere, organo kudeatzaileak proiektuak behar bezala ebaluatzeko eta ebazteko behar diren argibideak eskatu ahal izango ditu.

*Bederatzigarrena. Aplikatu beharreko araudia.*

Oinarri arautzaileetan xedatutakoaz gain, laguntza horiek 3/2007 Foru Arauak, martxoaren 27koak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko dirulaguntzei buruzkoak, eta hori garatzeko Erregelamendua, apirilaren 29ko 24/2008 Foru Dekretuak onartu zuena, arautuko dituzte.

3. La memoria del proyecto no es objeto de subsanación.

4. En cualquier caso, el órgano gestor podrá solicitar las aclaraciones necesarias para la correcta evaluación y resolución de los proyectos.

*Novena. Normativa aplicable.*

Además de por lo dispuesto en sus bases reguladoras, estas ayudas se regirán por la Norma Foral 3/2007, de 27 de marzo, de subvenciones del Territorio Histórico de Gipuzkoa y su Reglamento aprobado por Decreto Foral 24/2008, de 29 de abril.

EK\CV GAO-I-2023-03672